



❖ MUSIKA ESKOLA

Gabon kantak kalez kale, gaur

Musika Eskolako ikasleak kalez kale ibiliko dira gaur, 17:00etatik aurrera, Gabon kantekin herria girotzen. ||

❖ EREÑOTZU-Gabonak

Gabonetako musika emanaldia gaur

Gabonetako musika emanaldia izango da gaur Ereñotzuko elizan, 19:00etan. Parte hartuko dute, Doinu Zale musika eskolako ikasleak, eskusoinu, piano eta trikitixarekin, Ereñotzuko eskolako ikasleen abesbatzak eta Ozenki abesbatzak. ||

❖ SANTO TOMAS FERIA DONOSTIAN

Santo Tomasetako bi sari Hernanira: ezitia, Asier Garciak; fruta, Maddi Iradik

Santo Tomas eguneko 5 sari nagusietako 2, hernaniarrek irabazi dituzte. Ez tietan, gainera, lehenengo hiru sariak irabazi dituzte hernaniarrek: Jose Miguel Aizaga eta Angel Diaz dira bigarren eta hirugarrena.

HERNANIRA etorri dira Santo Tomas eguneko bi sari nagusi: ezতিরক onenaren saria Asier Garciak irabazi du, Naparralde baserrikoak, eta fruta sariketa, Maddi Iradik, Zabaloenea baserrikoak. Gainera, nabarmen geratu da, Ereñotzu bailara aparta dela ezti produktiorako, bigarren eta hirugarren sariak ere hango produktorek irabazi baitituzte. Jose Miguel Aizagak bigarrena, eta Angel Diazek hirugarrena. Aizagak Aparrainen ditu erlauntzak, eta Diazek Larre-Gainen.



Asier Garcia, Naparraldeko erlauntzen ondoan, ezti txapelduna eskuetan duela.

«Ezti argia, akazia asko daukana»

Asier Garciak dioenez, berak egiten duen eztiak akazia asko dauka; «ezti argia eta zapore ederrekoa da. Nahasia da, mila-lorea esaten zaiona, baina akazia proportzio handian dauka. Gaztaina ere izaten du pixka bat, eta txilarra (edo *ainarra*) ere bai».

Julian Urkiola da sariketan epaimahai-kideetako bat, eta Gipuzkoako Eztigileen Elkarte-ko Lehendakaria. Berak ere hala esan zuen atzo: «aurten irabazi duen ezti da, ezti argia, garbia, mila-lorea, baina akazia proportzio handia daukana».

80-100 kilo urtean

Bederatzi eztigile presentatu dira aurten sariketan. Ezti urte onena ez omen da izan aurtengoa, eta nonbait, produktio haundiegirik ez dute izan eztigileek. Garciak 80-100 kilo ezti ateratzen ditu urtean, gutxi gorabehera. Orain dela



Manu Iradi, Zabaloenekoak, Santo Tomasetako postuan.

6 urte hasi zen ezti egiten, Donostiako lagun batek animatuta. «Fraisoron kurtsilo bat egin nuen, lagun batek animatuta. Naparralden baneukan erlauntzak jartzeko lekua, eta mundu hau beti gustatu izan zait. Ezti izugarri gustatzen zait, eta batez ere, etxerako egiten dut: nerontzako, familikoentzat, lagunentzat... Naparraldeko hiru erlauntzez gain, baditut

gehiago ere, Esnoze herrian (Nafarroa). Denera, urtean 80-100 kilo inguru ateratzen ditut. Hobby modura egiten dut; nere asmoa ez da saltzea, edo hontatik bizitzea».

Sekretua: leku ona

Ereñotzuk badu zerbait, ezti ona egiteko. Aurten, hiru sariak Ereñotzuko erlazainek irabazi dituzte, eta lehen ere sariketa asko irabaziak dira

ereñotzuarrak. Garciak ere garbi dauka, ezti ona egiteko sekretua, batez ere, lekua dela. «Ezti egiteak baditu bere zailtasunak, eta ganean bazaude, produktio haundiagoa eta hobe ateratzen duzu. Hala ere, sekretu haundiena da: lekua. Naparralde inguruan akazia asko dago, eta ez da kasualitatea, inguru honetako eztigileek irabaztea horrenbeste sariketa».

Beste klabe batzuk ere eman dizkio Garciak Kronikari, baina berak dioenez, hori gehienek egiten dute: Zentrifugatu eta dekantatu egiten da ezti, hau da, reposoan utzi, eta zikina gora joaten da. Behean geratzen den ezti da garbiena, zikinik gabea. Horrez gain, umedadea kontrolatu, ilunpean gorde...

Maddi Iradik, fruta sariketa

Zabaloeneak irabazi du fruta sariketa, beste behin ere. Azken 13 urteetan irabazi dute iraditarrek Santo Tomasetako saria, eta ezagun bihurtu dira. Baita beste txapelketa batzuetan ere: aurten, adibidez, Ordiziako Sari Nagusia irabazi dute, eta Urretxuko eta Zumarragako Santa Luzitakoak ere bai. Urtea bukatzeko, Elgoibarren izango dira, Gabon Zaharretan. Batez ere, salmenta on bat izatea nahiko luke Manu Iradik, Maddiren aitak, eta saria suertatzen bada, hobe. Asteartean, errege sagarra saldu zuten Donostian gehiena, eta beste lekuetan baino haundiagoa saldu zela dio Iradik. Neurriaren arabera, 1-5 euroan saldu zen kiloak. ||

Aurten ere ez dira pasako Askatsu, Algorri eta Izenederretik

Ereñotzun bihar ibiliko dira etxetxe Olentzerorekin 14:00etan Plazatik abiatuta, eta jakinarazi dute aurten ere ez direla pasako Askatsu, Algorri eta Izenederretik, denboragatik. ||

❖ KIROLDEGIA

Kiroldegia itxita lau egunetan

Gabonak direla eta, Kiroldegia itxita egongo da bihar eta etzi, eta abenduaren 31 eta urtarrilaren 1ean. Horrez gain, abenduaren 27an ur festa izango da 10:00etatik 14:00etara eta igelilekuak itxita egongo dira. ||

❖ BERRIAK

Bilera gaur

Berriak dei egiten die elkarteko ostalariei gaur egingo den bilerara azaltzeko. 16:00etan izango da Biterin. Txotx denboraldiaz eta Tabakoaren Legeaz hitz egingo dute, besteak beste. ||

❖ PORTU

Patxin pailazoaren emanaldia gaur

Portuko Gabonetako ekin-tzen barruan, Patxin pailazoaren emanaldia izango da gaur, 18:00etan, auzo elkarteko lokalean. ||

Mendi Lore
loradenda, jardineritza

Gabon zoriontsuak opa gizkizuegu.
Zorionak eta Eguberri On!

Larramendi 5. HERNANI Tel.: 943 55 23 26

ezkati

Zorionak eta Eguberri On!!

ileapaindegia

Iturregi, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

PEÑA

OKINDEGIA - JANARIDENDA

EGUBERRI ON!!

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

AMAI

ARRATZ
ITSASBIAK

FRESKO ETA IZOZTUAK

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Eguzia:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauz:** **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Ipar-mendebaldeko haize zaka-rra sartu eta nabarmen hoztuko du. Euri giroa nagusituko da; goizean zaparradak nonahi botako ditu. Min.7° / Max.9°.

BIHAR Are gehiago hoztuko du, baina euri arriskua txikitu egingo da. Ilundu ostein izotza botako du. Elur-kota 500 m-ra jaitsi daiteke. Min.4° / Max.7°.



Angel Olan misiolari hernaniarrak Gipuzkoako Urrezko Domina jasoko du gaur. Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina emango dio gaur Angel Olan misiolari hernaniarrari, azken urteetan Etiopian egindako lanagatik. Bertan izango dira Marian Beitia-rangoitia alkatea eta Usoa Urrutiabengoa zinegotzia. Ekitaldia zuzenean eskainiko da internetez, www.gipuzkoakultura.net helbidean. Angel Olan, egunotan Hernanin da eta astelehenean hitzaldia eman zuen Kontraktantxa Gaztetxean. ||

Alvarez eta Estefano Osiñagako muslari onenak.

Joan den igandean, Osiñagako Mus Txapelketa jokatu zen Otsuenea sagardotegian eta bertan Isidro Alvarez eta Jonkar Estefano izan ziren irabazleak. Bigarrenak: Pedro Azpiolea eta Joseba Azpiolea. Hirugarrenak: Pantxo eta Jose Leon Martiarena. Eta laugarrenak: Jose M^o Mugika eta Jose M^o Mugika. 21 bikotek hartu zuten parte. Horrez gain, urteroko saskiaren zozketa egin zuten eta Itxasburu etxeko Intrauspe-Arozamena familia izan da sariduna. ||



Jasota Bezala

Errausketaren aurkako koordinadorak Donostiako PSE salatzen du

Donostiako 3. Administrazio-Auzietako Epaitegiak ezarritako kautelazko galarazpena dela eta, hau da, Hernanin atez ateko hondakin bilketa partzialki galaraztea behartuko lukeena, Gipuzkoako errausketaren aurkako Plataformen Koordinadorak Donostiako PSE salatu nahi du, bera izan baita salaketa bultzatu duena.

Gogoratu dezagun: PSEk Odon Elorza buru duela eta Denis Itxaso atzetik duela, hiriko alkatetzaren lortu zuen 2007an, bere hauteskunde programan bilduz, PNV, PP eta EA errausgailuaren errudun gisa, eta helburua zuen, gutxitzea, berrera-biltzea eta birziklatzea. Lortu nahi zen, birziklatu daitezkeen etxeko hondakin portzen-

taia %31tik %50era pasatzea.

Legegintzaldia bukatzean da eta errausketaren defendatzailea den PSEk ez du esandakoa bete (2007tik ez da %1a ere igo birziklatutako materiaren portzentaia) eta okerrera da, Denis Itxasok, Hernani, Oiarzun eta Usurbil bezalako herrien lorpenak zapaldu nahi dituela, (herri horiek atez ateko bilketaren bidez, %80 birziklatzea lortu dute) eta FCC bezalako enpresa haundi baten interesak babesten ditu, kontratuaren baldintzak negoziatu beharrean.

Argi dago PSEren interesak zaborren gestioaz arduratzen diren enpresa haundien eta Zubietako planta eraiki nahi duten konstruktora haundien berdinak direla. PSEk krisi garaian, ez du zalantzarik izan langabetuen, pentsionisten edo

langileen eskubideak murrizteko garaian, baina prest dago 400 milioi euro gastatzeko errausketari batean, non lehengai mordo susnosituko den (papera, plastikoa, materia organikoa...) eta energia gutxi sortu eta kutsadura haundia eragingo duen (CO₂, NO₂, dioxinak, furanoak...). Eta oraindik gehiago kaltetuko dute gure osasuna eta planetarena.

Hobe lukete Odon eta Denisek, beraien alderdiko kideek Asturiasen egiten dutena egingo balute eta errausketaren aurka jarriko balira. Eta PSCko dozenaka alkatek egin dutena ere bai, urte hauetan atez ateko bilketa jarri baitute.

Juanmi Galatas Etxeberria eta M^a Luisa Sánchez Echeverria
Gipuzkoako errausketaren aurkako Plataformen Koordinadora

(* Erredakzioan euskeratua)

JUDO A

Hernani, Gipuzkoako azpitxapeldun

Igandean Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Hernanin, alebin mailan, eta Hernaniko taldea azpitxapeldun geratu zen. Lehenengo aldiz, alebinen Eskola Kirola Jardunaldia ere izan zen eta Hernaniko 20 haurrek hartu zuten parte. ||



DANTZA GARAIKIDEA

Gazteentzako hiru saio Gabonetan

Dantza Garaikidea zer den ezagutzeko, 16 urtetik gorakoentzat 3 saio emango ditu Txaro Unzillak, Gabonetan. Abenduak 27, 28 eta 29an izango dira Biterin, 17:00etatik 18:00etara, doan. ||



ZORIONAK
ENDIKA ROSAS
'kike'
50 urte betetzen dituzulako
Jarraitu hain aloi eta txistoso
ZURE FAMILIA ETA LAGUNEN PARTETIK

IRAGARKI MERKEAK

Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jeiki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko.
Deitu: 661 679 700

Pisu bila nabil alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: solbentzia eta seriotasuna).
Deitu: 600 609 754.

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Kapritxo etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi haundia, sukaldea. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe).Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordaintzetan. Deitu: 629 682 827.

Audi TT salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€.
Deitu: 658 058 330.

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak.

"Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietza 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapija...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Allianz (ili)
ASEGURUAK
bizitza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia

Eguberri On guztioi!

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

tripontzi
taberna

Egunero
Menuak
Eguberri on guztioi!!

Kardaberaz, 11 if: 943555724

PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.

► Industria eta dekoraziorako pinturak
► Lurrak jartzen ditugu
► Pintatutako paperak

Zorionak eta Eguberri On!!

Kardaberaz 45
Tel.: 943 55 21 31

MARI FES
ARRANDEGIA

Gabon
zoriontsuak
opa dizkizuegu!

NAGUSIA 36 - ☎ 943 550 489